

K. Etxegarai eta E. Labayru: Diskurtsu historikoaren eraberritzea edo esaundetatik positibismo kritikoaren historiara

Joseba Agirreazkuenaga Dk.

U.P.V.-E.H.U.n Gaurregungo historiazko katedraduna.

Analizamos los presupuestos historiográficos de C. Etxegaray y E. Labayru. Ambos autores se propusieron: la aplicación a la historiografía vasca del método crítico positivo y la creación desde los nuevos postulados de nuevos sujetos historiográficos referidos al pueblo vasco. Su obra fue comentada y criticada por Miguel de Unamuno, en un momento en el que se publicaban las historias generales de España como por ejemplo la auspiciada por Cánovas del Castillo frente a la cual surgieron las historias de España de inspiración republicana y la publicación de la "España regional", una propuesta que desde presupuestos tradicionalistas reivindicaba el pluralismo regional.

Autore bien asmoa euskal historiografiari metodo kritiko positiboa ezartzea eta Euskal Herriari buruzko subjektu historiografiko berrien postulatu berriak sortzea da. Euren lana komentatua eta kritikatu izan zen 90eko hamarkadan Cánovas del Castillo bultzatzaile izan zen Espainiako historia orokorrak argitaratu ziren garaian; hauen aurrez aurre errepublikar ikuspegidun Espainiako historiak ere jaldi eta "España regional" argitaratu zen; azken honek erregioen aniztasuna erreibindikatzeko zuten ikuspegi tradizionalistetan zegoen oinarrituta.

We analyse the historical proposals of C. Etxegaray and E. Labayru. Both authors proposed to apply the positive critical method to Basque historiography and using the new postulates to create new historiographical subjects referring to the Basque people. Their work was commented upon and criticised in the 1890s, at a time when general histories of Spain were being published, such as that under the auspices of Cánovas del Castillo for example. Facing these, histories of Spain emerged that were inspired in Republicanism, together with the publication of "regional Spain", which called for regional pluralism from traditionalist positions.

Sarrera

XIX mendeko euskal historiografian hiru fenomeno nagusi bereiz genezake:

1. Ipar Euskal Herrian euskaldunak (“basques”) sujeto historiografiko bihurtzen dira euskaldunen historia orokorrak argitaratuz. Europako nazio berrietan, nazioaren historia orokorrak moldatzen dira, nola edo hala nazioaren oinarri historikoa eta beraz betidaniko omen zen sutraia frogatzeko.

2. Hegoaldean lehen menderdian foruen jatorriaren inguruan foralistak eta antiforalista amorratuek historiografi kontrajarriak burutu zuten. Historia, lege zaharraren garaian, argumentu juridiko legalen iturburu zen eta beraz eztabaida historiografikoaren barruan, liskar politiko juridikoak nabariak ziren. Horregatik lehen menderdiko eztabaida historiografikoak, eztabaida politikoaren islada garbia ziren.

3. Bigarren menderdian esaunda edo leienda historikoetan finkaturiko literatura alde batera utzita historialariak, historia burutzeko ofizioa oinarri berrietan sendotzen hasteko egitasmoa agertu zuten. Estanislao Labayru eta Karmelo Etxegarai historialari ofizioaren emaitza berriak 1890eko hamarkadan erakutsi zituzten. Gerora Bilbon mende hasieran Teofilo Guiarderek ere erakutsiko du ofizio berberaren ezagutza. F. Herrán Biblioteca bascongada bildumako editoreak 1898.an zera adierazi zuen: “¡que no facilmente se arrancan de cuajo leyendas y tradiciones acariciadas por largos siglos y que tanto enaltecen a la tierra que uno quiere!”. Horra ba 1898an duela ehun urteko berrikuntza nabarmena: Historialariak diskurtsu historiko kritikoa, ikerketa zehatzean oinarritua, bultzatu zuten eta Labayru eta Etxegarai portaera berriaren aitzindari ditugu. Baina hauen historiografia berria ez da huts hutsean burutzen. Canovas del Castillo politikariak errestituzio borbonikoa prestatu eta indartu zuen 1874 urteaz geroztik 1898arte, Espainiako erakundetze politiko nagusia antolatu zuen, non karlista-tradizionalistak alde batetik eta errepublikanoak bestetik, sistematik at gelditzen zirelarik. Canovas del Castillok 1886an Historia general de España berri bat idazteko taldea sortu zuen eta Espainiako Historiazko erretakademia proiektu historiografiko berriaren abiapuntu nagusi ere bihurtu zen, azken batean, Canovasek asmatu zuen sistema konstituzional berria bermatzeko.

Europa mailan bigarren erdian, Ranke historialari alemanak zientzi historiko berriaren oinarriak ezarri zituen, batez ere lan egiteko teknikan indar nagusia ezarriz eta horrela zientzi historiko sorburuen kritika positiboa egiten zuen eta dokumentuen egiaztasunean oinarritzen zuen diskurtsu historikoak benetakotasuna. Baina aldi berean, Ingalaterran adibidez, historiaren lana halako espekulazio kutsua eta literaturaren atalean edo esparruan kokatzen zen. Ez da aski erudizio ona izatea historia zuzena egiteko. Nahietaezkoa da interpretaziorako zioa izatea. Azken batean Europako herrialde bakoitzean zientzi historikoaren oinarri berrien garaipena modu diferentean eman zen.

Historialari profesionalen taldea osatzen joan zen, akademiaren bidez, elkarte berezien sorreraren bidez, unibertsitateko irakasleen bidez edo eta artxibero eta bibliotekariaren arteko historialaririk sortuz. Canovas del Castillok, Espainian, Guizotek Frantzia egin zuen antzera, unibertsitateak alde batera utzirik, akademiaren oinarritu zuen historia berria sortzeko ahalegina eta ahalmena.

Euskal Herrian, XVIII mendean Herri Adiskideen bidez, akademia antzeko giroa sustraitu zen. Baina XIX mendean antzeko erakunderik ez zen antolatatu. Sortzeko proposamenak egin ziren, Gipuzkoako Batzar Nagusietan 1841an, Diputazioen arteko bilkuretan adibidez 1841an, 1859an, 1864an, baina tamalez ez zen erakundetu zientzi elkarterik. 1876ko urtez geroztik, lore jokoen giroan, biltzen hasi ziren literatur eta historialariak besteak beste bere lanak eta ikuspegiak azaltzeko. Giro honetan Karmelo Etxegaraik “Euskal itz jostaldien Batzarrak” Donostian antolatatu zuen sariketara, 17 urte zuela, aurkeztu zuen bere lehen lana eta “aipamen onrargarria” lortu zuen. Gaia hauxe: “Aitorren etorrera edo Euskal Herriaren asiera”.¹ Hitz lauuko irakurgaia zen, leienden ildokoa, beraz historia eta literatura asmatuaren artekoa. Biblia, Aitorren etorrera Auñamendietara eta zazpi lurraldeen aipamena agiri zaizkigu.

Labayruk Bizkaiko historia berria egiten saiatu zen. Aurretik, 1880an, egunkari tradizionalistetan, kazetari legez, nabarmendu zen giro berean hazi eta hezi zen eta argi eta garbi adierazten zuen: “La patraña y la novela afearon las páginas de la historia de un pueblo singular cual ninguno”. Beraz helburua garbi adierazi zuen: “Restaurar lo verdaderamente histórico”. Hara bada, egia eta gezurraren arteko dialektika, zientzi historikoaren eremuan, asmatuaren literatura tarteko dugula.

Ondoko lerroetan, historialari legez soilik, aztertuko ditut aipaturiko biak, Bilbon eta inguruan, 1890ko hamarkadan bere lan berriak argitaratu baitzituzten eta beraz 98ko giroko gizonak ere badira zalantzarik barik. Euskal historiaren arloan eraberritzearen aldeko porrokatuak agertu ziren biak, tradizionalismoaren ideien aldekoak izan arren.

Azkenik aipatu, M. Unamunok, bien lanari buruz bere eritzi kritikoa argitaratu zuela 1896an, bata aintzakotzat hartzeko bere ikuspegiak landuz eta bestea, Labayrarena, gehien bat arbuiaitzeko.²

¹ ETXEGARAI K., “Aitorren etorrera edo Euskal Herriaren asiera”, *Euskal Herriaren alde*. San Sebastian, 1925, 234-236 orr.

² UNAMUNO M., *Obras Completas*, IV liburukia, (Ed. M. García Blanco). Madrid, 1966, 223-229 orr. Jatorrizkoak, 1896an argitaratu zituen *Revista Crítica de Historia y Literaturas Españolas, Portuguesas e Hispano-americanas aldizkarian*.

Garaiko historiografiaz ikus, PEIRO J., *Los guardianes de la Historia. Historiografía académica de la Restauración*. Zaragoza, 1995

Karmelo Etxegarai. Zumaia 1865.07.03-Gernika, 1925.11.4: Literatura eta Historiaren arteko lana.

Karmelo Etxegaraik bere burua bere kabuz hazi eta hezi zuen.³ 1890ko hamarkadan lortu zuen historialari profesionala bihurtzea. Ikasketak bere hartan utzi behar izan zituen, familiak bitartekorik ez zuelako. Alde batetik literaturarako zuen joera lantzen zuen eta bere gaztaroko curriculum literarioa 1891an amaitu zuen. Hainbat sari lortu zituen eta hainbat lore jokoetan bere poesiazko edo hitz lauzko lanak aurkeztu zituen. Errestaurazio lore jokoetako giro negartian hezitako gizona dugu berau. Ondoan aipatzen ditugun lore joko edo literatur lehiaketetan parte hartu zuen: 1882an Donostian, 1883an Marlinan. Hemen Arrigorriaga leienda aurkeztu zuen. 1884an Iruinean, 1885an, Nafarroako Euskara elkargoak eman zion saria. 1886an, Urnietako lore jokoe-tan. 1887an malko bedeinkatua leienda. 1888an Donostiako lore joko euskaroak, 1889an berriz Nafarroako. Euskara elkargoak, 1890an Donostiako lore jokoetan aurkeztu zuen Euskaldun bikain bat prosazko lana, 1891an berriz kontu zarrak izenekoa. 1906an Donostiako Fueroa ikerketa historikoa eta Bilintxeri buruzko lana. 1908an Eibarreko lore jokoetan Donostiako Euskal itz jostaldien batzarrea lana burutu zuen eta 1925an Ondarribiakoetan, Otaegi euskal olerkaria ikerketa.⁴ Lan guztiak euskaraz idatziak ziren eta azken hauek jadanik ikerketa historiko zehatzak ziren. Beraz euskaraz idatzi zuen historialaria dugu alde batetik eta azpimarratzekoa dugu berau, euskal historiografi-zko gaietan, J. I. Iztueta-ren ondoren aitzindari nagusietakoa dugulako.⁵

Lanbiderik ez zuela eta lore jokoetan izandako partaidetza azpimarragia aintzakotzat harturik, Gipuzkoako Diputazioan lortu zuen bulegoko lana 1884n eta biblioteca eta artxiboa atontzen hasi zen. 1890ko hamarkadan historialari legez profesionala izateko aukera irabazi zuen eta 1896an Bizkaiako diputazioaren eraginez, Gipuzkoakoak eta Arabakoak, beraz hirurak batera, "Cronista de las Provincias Vascongadas" izendatu zuten. Gernikara joan zen bizitzera eta esan genezake, mendebaldeko Euskal Herriko erakunde publikoak bere historialaria izango zutela aurrerantzean. Historiografia aldetik, beraz, 1890ko hamarkadan bere burua landu zuen eta lan garrantzitsuak argitaratu zituen. Azpimarragarriena *Las Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media* izenekoa, 1895an. Baina oraingoan bere ikuspegi historiografikoa landu nahi genuke eta horretarako Bilbon, 1898an argitaratu zuen liburua, *Trabajos de un cronista* dugu laburbilduma egokiena. Gerora, *De mi país*, *Miscelánea histórica y literaria* eta Eusko Ikaskuntzaren Deia 11 zenbakian,

³ Bizitzari buruz, ikus Auñamendi Entziklopediak argitaratzen duen biografia. Horrez gainera, ARANA J.A., "Karmelo Etxegarai idazle Gernikan", *Egan*, Donostia, 1975, 21-25 orr.

⁴ MUJICA G., "Don Carmelo de Echegaray" Homenaje a D. Carmelo de Echegaray (miscelánea de estudios referentes al País Vasco). San Sebastian, 1928, pp 686-687

⁵ SAN MARTIN J., "Karmelo Etxegarairen historia iker lanak", *Egan*, Donostia, 1975, 28-32 orr.

Eusko Ikaskuntzako historia sail zientifikoaren buru gisa historiaz eta metodologia historikoaz ari da.

K. Etxegarairen historiografiaz, hil ondoren, A. Campionen eta F. Arocenak, artikulu jakingarriak idatzi zituzten. Batez ere azken honek azpimarratzen saiatu zen, K. Etxegarai ikerlari zuzena izateaz gain, teknika historikoei, metodologiari berebiziko garrantzia ematen saiatu zela.⁶ Unamunok ere gogoz irakurri zuen bere lana. 1895an argitaratu zuen *Las Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media. Ensayo histórico* izan zuen aipamen kritikoa eta bere burutzazio berriak burutzeko abiapuntua. Historia berritzailearen premia aldarrikatzen zuen eta horretan bat zetorren K. Etxegarairen kezka. Giro horretan, M. Unamunok historiaz zuen ikuspegi teorikoa lerro bitan adierazi zuen: “Si de los fugaces *sucesos* quieren sacarse los *hechos* permanentes, verdadero objeto *científico* de la historia, hay que reducir el orden cronológico del *suced*er al evolutivo del *bacerse*, y no caer en pragmatismo excesivo”. Labayrurekin ez bezala, Etxegarairen lana goraiatu egin zuen M. Unamunok, benetako historialari zintzo bezala, imaginazio gutxikoa izan arren, lotuegia ikusten zuen garaian garaiko gertakizunetara. Horregatik, Unamunok, informazio berberean oinarrituz bestelako interpretazio teorikoagoak egiten ditu. Azken batean, liburuaz zera dio, “obra meritísima” dela, abiapuntu eta gogoeta berriak irekitzen zituelako historiaren arloan.

Trabajos de un cronista liburuan, 1898an argitaratua, bere helburu historiografikoa argi eta garbi adierazten zuen: “la más constante y arraigada de mis aspiraciones: la de contribuir por mi parte a la renovación de los estudios históricos relativos al país vascongado, a fin de que sean cada vez menos espesas las tinieblas que pretenden ocultarnos cual era la manera de pensar, de sentir y de obrar, cual era, en suma la manera de vivir de las generaciones que en la sucesión de los siglos ocuparon el solar euskaro”.

Esaldi honetan azpimarratu behar da berriztatu nahi zuela euskal historiografia. Berriztapena lortzeko, oinarritzko abiapuntua sorburu historikoak kritika zorrotz eta positiboan ezarri behar ziren eta iturrien irakurketa berriak eginez, historia berriztatua sortuko zen, dokumentuek berez ez dutelako hitzik egiten baina bestalde historiarik ezin daiteke burutu erudizio enpiriko gabe. Horregatik ez da mugatzen positibismo dokumentalistara edo sorburuen kritikaren teknikara. Frantziako Agustin Thierry izango zuen eredu eta beraz ikerketa eginez, artistaren jitea ere erakutsi behar zela, aldarrikatu zuen.

⁶ AROCENA F., “Don Carmelo de Echegaray y la historia del País Vasco”, *Euskalerriaren alde*, San Sebastian, 1926, orr.404-418.

CAMPION C., “Echegaray y la historia”, *Euskalerriaren alde*, San Sebastian, 1925, 413-415 orr.

GURRUTXAGA I., “Carmelo de Echegaray. Su influencia en los estudios vascos”. *Euskalerriaren alde*, San Sebastian, 1928, 127-135 orr.

Euskal Herriko historia ezagutzeko, lehendabizi tokiz tokiko monografiak burutu behar zirela uste zuen eta guztia kritikaren ikuspegitik begiraturik. Horregatik, lotsa barik, azaltzen zuen, “todavía no se han examinado, a la luz de la crítica, varias tradiciones que pretenden pasar por populares, aunque yo dudo mucho que lo sean, porque las he encontrado en los libros y no las he encontrado nunca en el corazón de las muchedumbres anónimas(...) Si la historia ha de ser a manera de resurrección artística de esas sociedades fenecidas, claro es que no debe hablar por nuestra boca, sino por boca de aquellas generaciones, de las cuales no nos toca a nosotros ser más que eco fidelísimo. Hacer otra cosa es perpetuar los equívocos y los errores y falsear deliberada o inconscientemente la historia, rebajandola al nivel de la leyenda”. Beraz hona hemen bere helburua, leiendatik historiara igaro behar zela. Bere ustez, egia historikoa galtzen joan da denboran zehar eta berriz jatorrizko benetako egia lortzen saiatu behar da historialaria. Dena dela, nire ustez, hau ezinezkoa da, historialariak literatura egiten duen heinean, bere garaiko kezkak eta hizkerak erabiltzen dituelako beste garaiak ezagutzeko.

Gaiari buruz, historia osoa lantzeko proposamena egiten zuen: “los vascongados, dentro del territorio que hemos acotado, debemos cultivarlo en su totalidad, sin que quede porción ninguna que no tratemos de remover”.

Euskal herriaren historiari ez dagoela ikusten zuen eta horretara bideratu nahi zituen bere ahaleginak: “Siento en mi la convicción profunda de que no poseemos todavía una verdadera historia del pueblo vascongado, y aspiro solamente a hacer compartir al público mi convicción, persuadido de que de esta vasta reunión de espíritus rectos y activos saldrá bien pronto alguno digno de ocupar el alto puesto de historiador de nuestro país”.

Tokian tokiko udalen historian murgiltzeko premia behin eta berriro aldarrikatu zuen eta protagonismo moeta guztiak aintzakotzat hartzeko saiakera proposatu. Horrela garbi adierazi zuen “la historia no es obra exclusiva de los grandes, de los proceres, de los caudillos, mas que de ellos, es obra de los pequeños, de los desconocidos, de los anónimos, de los invisibles, de aquellos que constituyen lo que llamamos pueblo”⁷. Horra bada, esaldi honetan, indibidualismoa gaitzezten zuen eta herria sujeto kolektibo legez aldarrikatu zuen helburutzat. Tradizionalismoak aldarrikatzen zuen organikotasunaren aldeko agiri da, historiaren interpretazioa eta helburua ezartzeko unean.

Historialarien nortasunez hauxe azpimarratzen zuen: “Ni excesiva presunción, ni pusilanimidad y carencia de criterio propio: esta ha de ser la divisa

⁷ ECHEGARAY C.: *Trabajos de un cronista*. Bilbao, Biblioteca bascongada de Fermin Herran, 1898, p.131. Horrez gainera bere ideia historiografikoak ezagutzeko A. Campioni buruzko hitzaldi baten testua ere interesgarria dugu, Blancos y Negros (guerra en la paz) nobelaren argitalpenaren hitzaurre gisa argitaratua, Donostian, 1934an, Zabalkunde bilduman, (Beñat Idaztiak)

que debe tener presente quien se dedique al cultivo de los estudios históricos⁷⁸

Lan monografiko ugari burutu zituen aurrerantzean Karmelo Etxegarai eta ez zen gai izan sintesirik burutzen. Beharbada, laburpen onena Gipuzkoako foru erakundeei buruzkoa izan zen.⁹ Bere anaia gaztea, Bonifacio izango da, ildo historiografiko beretik abiatuak, 1928an, Espasa izeneko hiztegi entziklopedikoan argitaratu zuen Vasconia izenean, laburpen eraginkorra eta aintzat hartzekoa, idatzi zuena.

Bestalde, gogoratu behar dugu, historialari legez, K. Etxegaraiek Diputazioetako ordezkarien arteko bilkuretan, partaide zuzena izan zela, batez ere, testu edo manifestua idatzi behar zen unetan. Horrela, 1904 eta 1917ko manifestu autonomikoetan, historian finkaturiko doktrina legala eta foralaren interpretazioa K. Etxegarairen eskuan egon zen. Tradizionalista izanik, autonomiaren aldeko kontzentsuzko pertsonai publikoa bihurtu zen.

Laburbiltzeko, leiendatik historia kritiko eta positiboaren ibilbidea markatu zuen eta euskal historiari nortasun zientifikoa emoten saiatu zen, sujeto historiografiko modernoa eraikiz, Espainia mailako uniformitatean argitaratzen ziren Espainaiako historia nagusien eremuan.

Estanislao Labayru. Betangaz (Filipinas) 1845.06.07-Bilbao 1904.01.22

E. Labayruk, Bizkaiko historia monumentalara argitaratzen du 1895an.¹⁰ Aurretik bestelako lanak argitaratu zituen, biografiazkoak bereziki eta Espainiako Historiazko erret akademiako laguna izendatu zuten. Bizkaiko ohorezko kronista titulua ere eman zion Bizkaiko Diputazioak. Historialari izateaz gain, eliz ikasketetan sakondu zuen, apaiza eta kazetari legez 1880ko hamarkadan tradizionalismo katolikoaren ildotik, egunkariak sortu eta egunkarietan sarritan idatzi zuen. 1880an La Voz de Vizcaya sortu zuen eta gerora El Vasco. Diario católico politikoan ere idatzi zuen.

Mañarikuak adierazten duen legez, bere historiak ekarpen berria egin zuen baina batez ere Bizkaiko kronikoia edo annales batzuen itxura hartu zuen historia baten orde. Hala ere ekarpena dokumentu eta informazio arloan ikaragarria izan zen. Ez da ahaztu behar positibismoaren garaia zela eta ustea zen dokumentuak berez mintzatzen zuela. Baina horrez gainera bestelako gauza ere azpimarratu behar dugu. Aipatu dugu tradizionalismoak eta errejionalismoak Espainia ofizialetik eta beraz Espainiako historiatik at gelditu zirela. Labayruk bere obrarekin, Bizkaia, sujeto historiografiko legez, azaldu zuen.

⁸ Ibidem p.152

⁹ *Epítome de las Instituciones forales de Guipuzcoa*. San Sebastian, 1925

¹⁰ Bere bizitzaz eta historiografiaz ikus, MAÑARICUA A., *Historiografía de Vizcaya.(Desde Lope García de Salazar a Labayru)* Bilbao, 1973.

Eta beharbada honetan datza beraren ahaleginik handiena. Bestalde, leiendak eta narrazio literario erromantizismoaren ildotik, sinismena sortarazteko beste-ko ekarri zuten. Horregatik berak ere planteatu zuen, historiaren berritzea behar zela. Eta bere beste helburua ere argi eta garbi adierazi zuen: “Restaurar lo verdaderamente histórico, apuntar lo probable y disipar las nieblas aquí y alla espaciadas sobre la nación Euskalduna, con preferencia lo concerniente al Señorío o condado de Bizcaya, es mi intento(...) la historiografa ha de servir no solo para dar e imprimir arte al penoso estudio de la historia sino también para amenizarle”.

Bestalde badaki jakin euskal historiografia ez dela aberatsa. Lehen liburu-kiaren sarreran agiri da ikuspegi kritikoa eta hori da azpimarragarriena.

Beste kontu bat dugu lortu zuen ala ez. Unamunok kritika zorrotza argitaratu zuen, Bizkaiko historia ezik, Bizkaiko gertakizunen biltegia zela erreparatu zion: “Se titula *Historia* con bastante impropiedad, porque, equivaliendo esta denominación a ‘narración’ no puede decirse que lo sea este museo de *curiosidades* menudas, ensartadas en un hilo tipografico y a las veces cronológico, verdadero cronicón de penosísima lectura, en que el autor ha ido vertiendo todas sus notas y apuntes, valgan lo que valieren. Es inútil buscar en este tomo un tratado historico conforme a las exigencias científicas; el autor vive fuera de las grandes corrientes que dominan la historiografía moderna”. Dena dela nire ustez, positibismo kritikoa, garaiko korrente historiografiko nagusienetarikoa zen eta Labayruk horren eragina bazuen bai. Egia esan, lehen liburu-kiaren lehen ataletan euskaldunen protohistoriaz ari zenean, ez da agertzen hain enpirikoa eta hori da, hain zuzen ere, Unamunok gehien kritikatzen ziona. Labayruren *Historia del Señorío de Bizcaya* lanean lehen liburu-kiaren izugarri interesgarriak izan zirela eta historia baino gehiago dokumentuen kultuan oinarrituz, ez du historiarik egiten dokumentazio bildu, historia finko eta sendoa etorkizunean lantzeko. Bere garaiko fantasia eta leienden aurkako jokabidetzat har dezakegu portaera hau. Horregatik, bere historia, erreferentziadun bihurtu izan da XX mendean zehar.

Bai Etxegaray eta bai Labayruk, txostena batera idatzi zuten, Bizkaiko Jauregian bidrieran jartzeko proposaturik zegoen gaia “Jaun Zuria foruak zin egiten”, kritikatu eta baztertzeko eskatuz, historiarekin bat ez zetorrelako.

Bukatzeko hau da azpimarragarriena, alde batetik, sujeto historiografiko berriak sortu zirela eta bestetik ikuspegi kritikoak nagusi bihurtzen ari zirela. Historiografiak jauzia ematen hasi zen eta XX mendean kritizismo hau nabarmena izan zen, alde batera uzten zelarik literatura historikoak sorturiko fantasiako gaiak eta historia kritikoa bere lekua irabazteko.